

UDALAREN OSOKO BILKURA

2017ko ekainaren 20ko ezohiko bilera

BERTARATUAK

ALKATE UDALBURUA

M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
XABIER LOSANTOS OMAR
IDOIA BLASCO CUEVA
IKER AGIRRE BARTZENA (1)
DIONI ANDRES BLANCO

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN

EH-Bildu Leioa:

ARITZ TELLITU ZABALA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ
JOKIN UGARTE EGURROLA

Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Alderdi Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ

BERTARATU EZ DIRENAK:

BEGOÑA JUARISTI LINACERO
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

EUSKARAKO ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI JN.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

IDAZKARITZA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

(1) 19:26an heldu zen, 2. puntua eztabaidatzen ari zenean.

Leioako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hogeiko arratsaldeko zazpiak eta hamazortzi direnean, Elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ezohiko bilera egiteko. Alkate Udalburua M^a **CARMEN URBIETA GONZALEZ** andrea izan da bileraren burua, eta orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran, izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dutenak. Halaber, **Idazkari Nagusia, CHIARA CAMARÓN PACHECO andrea** bertaratu da. Alkate Udalburu andreak aurretik egin die ezohiko bileran parte hartzeko deia, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan eta 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuran onartutako eta urte bereko irailaren 23ko BAOren 182. zenbakian argitaratutako Leioako Udaleko Udal Araudi Organikoa eta Herritarren Partaidetzakoaren 25. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Adierazitako orduan, lehenengo deialdian, Presidentetzak bilkura irekitzat eman du; jarraian, aparteko bilera honetako gai-zerrenda aztertzeari ekin diote:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- ALKATEAREN PROPOSAMENA, BILBOKO MERKATARITZA GANBERAKO ARBITRAJE GORTEAK EMANDAKO DR-5/2016 ARBITRAJE-PROZEDURAREN BIDEZ EZARRITAKO 2017KO APIRILAREN 24KO ARBITRAJE-LAUDOAREN KONTRA AKZIO JUDIZIALAK HASTEKO:

Alkatearen proposamena irakurri ondoren, 2017ko apirilaren 24ko arbitraje-laudoaren kontra akzio judizialak hasteko,

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 6an eman zuen 25. irizpena aintzat hartu ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

Intervención de D. Xabier Olabarrieta Arnaiz, del Grupo Popular de Leioa.

Simplemente para señalar que nuestra postura en este punto, tanto en este punto como en el siguiente, va a ser la de abstención.

Intervención de D. Juan Carlos Martínez Llamazares, del Grupo Municipal Socialistas Vascos.

Sin más, simplemente, como el resto del Equipo de Gobierno votamos a favor, y simplemente, insistir en la necesidad de tener el mayor consenso posible.

La verdad, es que la lectura de la demanda, las alegaciones que ha presentado la UTE es terrible, primero por lo que algunos entendemos que, a pesar de todo -es una valoración personal-, me parece que no está trabajado del todo, creo que hay demasiados apriorismos, pero, sobre todo, hay dos elementos que a nosotros nos llaman la atención, fundamentalmente, que abandonan a su suerte a Aros, entienden que el Tribunal de Defensa de la Competencia les deja fuera, y por lo tanto, no tienen nada que reclamar, y entonces, de alguna manera, de su escrito lo que se viene a deducir es que, si lo han hecho mal, pues, no podrán reclamar nada, es decir, tampoco procuran defender la intervención de la UTE Pinosolo, entonces, de alguna manera, la abandonan a su suerte y dicen, bueno, pero nosotros sí podemos reclamar, *“la UTE Pinosolo Aros Estudio de Arquitectura, de acuerdo con el procedimiento 7º de la Autoridad Vasca de la Competencia, quedaba constreñida a no percibir cualquier tipo indemnización, o compensación, por daños y perjuicios que pudieran derivarse de la resolución del contrato, o en su caso, de recuperar las cantidades ya abonadas”*.

Hay unas limitaciones que tiene Aros Estudio de Arquitectura para poder reclamar, las asumen como tales, y dicen, bueno, pero como nosotros somos Vda. de Sainz, nosotros sí vamos a poder reclamar. Entonces, previamente, establecen un concepto de lo que es una Unión Temporal de Empresas, que la resuelven en cuatro líneas, es decir, entienden que aquí no hay responsabilidad solidaria, dicen, bueno, éstos son unos malandrines, nosotros hemos actuado correctamente, y sin justificar en absoluto. Realmente, a mí me parece muy pobre el argumento para entender que no hay una responsabilidad solidaria, con esto, para mí, creo que han ido de sobrados, con esa expresión, hablo desde el conocimiento perfectamente, parcial, todavía, del Derecho Administrativo, lo que pasa es que es una demanda que está fundamentada en el Derecho Civil, pero me parece una sobrada.

Entonces, a donde quiero ir, más allá de que reclaman 3.400.000 €, que es una burrada, que no está, ni mucho menos, justificado que está hecho desde el rencor, desde el resentimiento, absolutamente, dejando tirado a un compañero de viaje, entendiendo, pasando absolutamente por encima de todo lo que se debatió en la Autoridad Vasca de la Competencia confirmado por el Tribunal Superior de Justicia, absolutamente, pasan de soslayo, es decir, no quieren saber nada, y hacen un planteamiento de una indemnización, que a dónde quiero llegar yo, o este Grupo, es que realmente, ahora más que nunca, tenemos la sensación de que nos quieren robar, quieren obtener a lo que no tienen derecho, dejando de lado a su compañero de viaje cuando no les interesa.

Por eso, lo voy a volver a decir, Xabier, yo creo que tenemos que votar todos a favor, porque insisto, nos quieren robar, y no en el sentido estricto jurídico del término, sino que, realmente, quieren esquilmar el patrimonio municipal de forma absolutamente injustificada, con una demanda, que en muchos apartados, y me imagino que Ricardo Sanz, además, lo hará valer

muy bien, no se sostienen muchísimos argumentos porque van de sobrados con este escrito, entienden que como no se aplica el Derecho Administrativo, parten de ahí, ni siquiera defienden la posibilidad de que este Ayuntamiento pueda plantear la nulidad del laudo, pasan por encima diciendo, bueno, como esto ya está resuelto; ellos desestiman la posibilidad de que haya un recurso, que es, precisamente, lo que vamos a hacer nosotros.

Por eso digo que realmente, van como muy de sobrados con este escrito y por tanto considero, entiendo, que tiene que visualizar esta empresa que todo el Pleno, como representantes de los vecinos de Leioa, tenemos que ponernos de frente a ellos, decirles que no nos vamos a dejar engañar, que la estrategia que han diseñado aquí es realmente penosa, y que me sigue pareciendo triste que sigamos teniendo una abstención, a pesar de que en este momento del proceso, creo que tenemos que ir todos a una, y en la medida de lo posible, que nos vean serios, seguros, firmes, y que no les vamos a dar nada, porque yo creo que nada se merecen, y porque aparte, insisto, el hecho de dejar a un compañero de viaje tirado a su suerte, sin ni siquiera defender, mínimamente su intervención, sino, simplemente, decir, éramos dos, pero ahora solo somos uno, el otro ya sé que no puede hacer nada, pero, yo sí puedo hacer, pero, yo creo que, insisto, debemos todos mostrar una unidad de acción, más allá del trabajo jurídico, que creo que se está haciendo muy bien, una unidad de acción, para que nos tengan enfrente y vean que no es fácil y que consideramos absolutamente injusta su pretensión, por eso entiendo que todos deberíamos votar a favor.

Intervención de la Sra. Alcaldesa, D^a M^a del Carmen Urbieta González, de Euzko Abertzaleak.

No voy a extenderme, sino simplemente decir que, desde que tiene noticias este Ayuntamiento de que se va a producir, o que se acepta, por parte de la Corte Arbitral, el proceso de arbitraje, nos hemos puesto como Ayuntamiento, y defendiendo los intereses de este Ayuntamiento y de nuestro pueblo, en contra, y seguiremos estando en contra de todo este proceso, sin más.

BOZKETA ETA UDALBATZAREN ERABAKIA

Udalbatzak, aldeko hamazazpi botoren gehiengoarekin (bilerara bertaratu ziren Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzien botoak, Esnatu Leioa taldeko hiru zinegotzienak, EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak), bileran parte hartu zuen Leioako Talde Popularreko zinegotzi baten abstentzioarekin, **honako hau erabaki zuen:**

Kontuan hartuta 2016ko abenduaren 13an Leioako Udal honi helarazi zitzaiola Bilboko Arbitraje Gorteko idazkariaren 2016ko abenduaren 12ko komunikatua, 2016ko abenduaren 7ko Batzorde Iraunkorraren erabakiak jasotzen zituena, zeintzuen bidez izapidetzeko onartu baitzen Aros Estudio de Arquitectura SA eta Excavaciones Vda. de Sainz SA enpresek eraturako aldi baterako enpresa-elkarteak (PINOSOLO ABEE) Leioako Udalean aurkeztutako arbitraje-eskaera

Kontuan hartuta dagokion prozedurako izapideak jarraitu ondoren 2017ko urtarrilaren 18an 111/17 Alkatetza Dekretua igorri zela –horren bidez erabaki zen "berrestea LEIOAKO UDALAREN oposizioa Aros Estudio de Arquitectura SAK eta Excavaciones Vda. de Sainz SAK (PINOSOLO ABEE) eraturako aldi baterako enpresa-elkarteak Bilboko Arbitraje Auzitegiaren

aurrean aurkeztutako DR-5/16 erreferentziako arbitrajearekiko, toki-erakunde honek ezin baitu arbitrajean onartu..."-.

Kontuan hartuta, Leioako Udalak arbitrajearen aurka jartzeko erabakia berretsita, 2017ko apirilaren 28an, 4392 sarrera-erregistroko zenbakiarekin, Leioako Udalean, aurka jartzeko arrazoiak gaitzestea erabakitzen zuen arbitraje-laudoa jaso zela.

Erreferentziako espediente guztiak kontuan hartuta,

Oinarri hartu dira honako txosten hauek: José Antonio Moreno Molina jaunak, Administrazio Zuzenbideko katedradunak, 2017ko maiatzaren 25ean igorritako txostena, Toki araubideari buruzko arloan indarrean dirauten legezko xedapenen testu bategina onartu duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikuluan, eta Antolakuntza- eta jarduera-araudia eta toki erakundearen araubide juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 221. artikuluan agindutakoari jarraikiz, eta 2017ko maiatzaren 31n udal idazkariak igorritako txostena; bietan aipatu da Leioako Udalak 2017ko apirilaren 24ko laudoa – Bilboko Merkataritza Ganberako Arbitraje Gortearen DR-5/2016 Arbitraje Prozeduran emandakoa– inpugnatzeko aukera, eta biak erabili dira erabaki hau arrazoitzeko,

Osoko bilkuraren eskumenekoak diren gaietan jarduerak burutzeko ahalmena erabiliz, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 j) artikuluekin bat,

Lehenengoa.- Jurisdikzio zibilean aurkaratzea 2017ko apirilaren 24ko arbitraje-laudoa, Bilboko Merkataritza Ganberako Arbitraje Gortearen DR-5/2016 Arbitraje Prozeduran emandakoa, erabaki honen arrazoibide idazkaritzaren 2017ko maiatzaren 31ko txostena –horri buruzkoa– eta José Antonio Moreno Molina jaunak, Administrazio Zuzenbideko katedradunak, 2017ko maiatzaren 25ean igorritako txosten juridikoaren edukia erabiliz, zeren eta ulertzen baita Leioako Udala ezin dela gai horri buruzko arbitrajepean jarri.

Bigarrena.- Xabier Nuñez Irueta jauna, auzitegien prokuradorea, udalaren ordezkari izendatzea (horretarako, dagokion ahalordea emango zaio) eta abokatuaren defentsa Ricardo Sanz Cebrián jaunak egingo duela erabakitzea.

Hirugarrena.- Udalaren ordezkari gisa dituen eskumenak eragotzi gabe, alkateari erabaki hau betearazteko behar dituen ahalmenak ematea.

2.- LEIOA KIROLAK SAU SOZIJETATEKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN ERABAKIAK OFIZIOZ BERRIKUSTEA ETA DEUSEZTASUNA DEKLARATZEA:

Irakurri da Alkatearen proposamena, hau da, Ofizioz Berrikusteko Espedientea ebazteko Udalbatzaren Erabakia.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 12an egindako bileran eman zuen 31. irizpena aintzat hartu da. Horren ziurtagiria espedientean jasota geratu da.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

BOZKETA ETA UDALBATZAREN ERABAKIA

Udalbatzak, aldeko hamazortzi botoen gehiengoarekin (bilerara bertaratu ziren Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzien botoak, Esnatu Leioa taldeko hiru zinegotzienak, EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak), bileran parte hartu zuen Leioako Talde Popularreko zinegotzi baten abstentzioarekin, **honako hau erabaki zuen**:

Honako hauek kontuan hartuta:

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2009ko abuztuaren 29an, LEIOA KIROLAK SAU sozietateak honako kontratu honen lizitazio publikoa deitu zuen, prozedura irekian, lehiaketa bidez adjudikatzeko: Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak egikaritzea.

Dagokion lizitazio prozeduraren ostean, 2011ko urtarrilaren 31n, LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio kontseiluak, kontratazio organoa izanik, kontratua behin-behinekoz adjudikatu zion AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA (PINOSOLO ABEE) enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteak aurkeztutako eskaintzari, eskaintza tekniko eta ekonomiko onuragarriena zela iritzi baitzion.

Lizitazio prozedura horretan, ARCAIN INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SL enpresak LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio kontseiluari laguntza eta aholkularitza lanak egin zizkion.

2011ko otsailaren 11n, LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio-kontseiluak ondorengoa erabaki zuen: kontratua behin betiko PINOSOLO ABEEri adjudikatzea.

“Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak egikaritzea” kontratua LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen eta PINOSOLO ABEEren artean sinatu zen 2011ko apirilaren 1ean.

2012ko uztailaren 12an, LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio kontseiluak, gai zerrendako 5. puntu moduan, kontratuaren adostutako ebazpenerako izapideak hastea erabaki zuen; izan ere, zer-nolako egoera ekonomikoa dagoen ikusirik eta haren etorkizuneko itxaropenak, bai eta Aurrekontua Egonkortzeko Legetik sor daitezkeen ondorioak ere, egungo kontratuari eustea ez zen zuhurra.

LEIOA KIROLAK SAU sozietateko presidentek 2012ko urriaren 3an egindako idatziaren bidez, PINOSOLO ABEEri administrazio kontseiluak hartutako erabakia jakinarazi zitzaion, adjudikatutako kontratua bi aldean adostasunez suntsiarazteko espedientea haste aldera.

Hala ere, 2012ko urriaren 11ko idatziaren bidez (sarrera-erregistroko zk.: 6076), PINOSOLO ABEEK aipatu zuen kontratua egikaritzeko asmoa zuela eta ez zuela aztertzen LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio kontseiluak proposatutakoa: adjudikatutako kontratua bi aldean adostasunez suntsiaraztea.

Bien bitartean, 2011ko urtarrilaren 24an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren aurrean DGM de Arquitectos SLP enpresak salaketa idatzi bat aurkeztu zuen ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA SL enpresak eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteak elkarren artean ustez informazioa trukatu izanagatik; hori guztia PUJOL ARQUITECTURA SLP enpresaren laguntzarekin.

Lehia ustez murrizten zuten jardunbideengatik zehapen espediente bat ireki eta hura ondoren 05/2012 zenbakiarekin izapidetu ostean, 2013ko maiatzaren 21ean Lehiaren Euskal Kontseiluak zegokion erabakia hartu zuen eta, horren bidez, honako hau ebatzi da:

“LEHENENGOA.- Espediente honetan Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikuluaurren urratze bat egiaztatuta dela aitortzea, eta ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA SL enpresa dela haren erantzule.

BIGARRENA.- Espediente honetan Lehiaren Defentsarako Legearen 3. artikuluaurren urratze bat egiaztatuta dela aitortzea, eta ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA SL enpresa dela haren erantzule.

HIRUGARRENA.- Espediente honetan Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikuluaurren urratze bat egiaztatuta dela aitortzea, eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA enpresa dela haren erantzule.

LAUGARRENA.- Espediente honetan Lehiaren Defentsarako Legearen 3. artikuluaurren urratze bat egiaztatuta dela aitortzea, eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA enpresa dela haren erantzule.

BOSGARRENA.- ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA SL enpresari 89.000 euroko zehapen isuna jartzea.

SEIGARRENA.- AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA enpresari 45.000 euroko zehapen isuna jartzea.

ZAZPIGARRENA.- LEIOA KIROLAK SAU sozietateari interes publikoaren kontrako debekatutako jokabideak kentzeko agindua ematea. Beraz, arau haulei ez die kalte-ordainik edo konpentsaziorik ordainduko “Kiroldegi” kontratua suntsiaraztearen ondoriozko kalte galerengatik, edo, hala badagokio, kontzeptu horretan jadanik ordaindutakoak berreskuratuko ditu.

ZORTZIGARRENA.- AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA, ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA SL eta LEIOA KIROLAK SAU enpresek ebaspen honetan agindutakoaren egikaritzea Lehiaren Euskal Agintaritzaren honen Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean justifikatuko dute.

BEDERATZIGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritzak honen Ikerketa Zuzendaritzari eskatzea ebazpen hau osorik betetzeko delako zaindu dezala.

HAMARGARRENA.- Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikularen eta 3. artikularen urraketa espediente honetan ez dela egiaztatuta aitortzea, PUJOL ARQUITECTURA SLP enpresaren jarduerari dagokionez.

HAMAIKAGARRENA.- Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikularen eta 3. artikularen urraketa espediente honetan ez dela egiaztatuta aitortzea, EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ enpresaren jarduerari dagokionez.”

Zehatutako enpresek, ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA SLak eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SAK, administrazioarekiko auzietarako hainbat errekurtsio aurkeztu zituzten Lehiaren Euskal Kontseiluak 2013ko maiatzaren 21ean hartutako erabakiaren aurka (407/2013 eta 428/2013 zenbakiak dituzten prozedurak). Horiei buruzko epaiak HIRUGARREN AURREKARIAN aipatu dira.

2013ko ekainaren 26an, LEIOA KIROLAK SAU sozietateko presidente andreak ofizio bat igorri zion Lehiaren Euskal Agintaritzari, eta honako hau zioen hitzez hitz:

“Agintaritzak horrek AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SL enpresa, baina ez EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA, zehatzeko duenez eta arau hausletzat jotzen duenez, eta LEIOA KIROLAK SA sozietateak delako kontratu hori aldi baterako enpresa elkarte bati adjudikatu zionez (Pinosolo ABEE), bi merkataritzak sozietate horiek osatua, agintaritzak horri honako hau eskatzen diot, mandatu hori zehatz-mehatz beteazteko asmoz: “Pinosolo kiroldegia” kontratuaren suntsiarazpena egin behar den moduari buruzko jarraibide zehatzak eman ditzala, horretarako legeko kausa izatean.”

Eskaera hori ikusita, 2013ko abuztuaren 1ean, LEIOAKO UDALEKO Erregistro Orokorrean Lehiaren Euskal Agintaritzaren idatzi bat sartu zen (sarrera-zenbakia: 5868) honako eduki honekin:

“Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenaren aurretik, LEIOA KIROLAK SAU sozietateak Pinosolo ABEEri (AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA) adjudikatutako Pinosolo kiroldegiko proiektua idazteko eta obra egikaritzeko kontratua suntsiarazteko espediente bat hasi zuen.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenak kontratu horren suntsiarazpenari zuzenean eragiten dio LEIOA KIROLAK SAU sozietateari interes publikoaren kontrako jokabideen ondorioak kentzeko agintzen baitio.

Horregatik, “LEIOA KIROLAK SAU” sozietateko kontratu horren suntsiarazpenaren barnean, Lehiaren Euskal Kontseiluak 05/2012 zehapen espedientearen ebazpenean, PINOSOLO LEHIAKETA, ezarritako betebeharrak sartu beharko dira, ebazpen horretako Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen kontrakotzat jotako jokabideak kentzeko.

Bereziki, ondorengo erreferentzia sartu beharko da: LEIOA KIROLAK SAU sozietateak ezin diela “Kiroldegi” kontratua suntsiarazi ondoren sortutako enpresa arau hausleei, ARCAIN eta AROS ESTUDIO

DE ARQUITECTURA (Pinosolo ABEEren % 70ean parte hartzen du), kalte-galerengatik edozein ordain mota edo konpentsazio ordaindu, eta kontzeptu horretan jadanik ordaindutako zenbatekoak berreskuratuko ditu.

Azkenik, aipatu behar da LEIOA KIROLAK SAU sozietateak adierazitako Lehiaren Euskal Kontseiluko ebazpenean agindutakoaren egikaritzea justifikatu behar duela Lehiaren Euskal Agintaritza honen Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean.”

2014ko martxoaren 17an, SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak txosten juridiko bat igorri zuen, eta bertan, Leioako Pinosolo kiroldegiko proiektua idazteko, obra zuzendaritzako, segurtasun eta osasun alorreko koordinazioko eta obrak egikaritzeko kontratuaren egoera juridikoa aztertu zen.

2014ko apirilaren 29an, LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio kontseiluak ondorengo erabakia hartu zuen, gai zerrendako 3. puntu gisa:

“Pinosolo kiroldegiko proiektua idazteko, obra zuzendaritzako, segurtasun eta osasun alorreko koordinazioko eta obrak egikaritzeko 2011ko apirilaren 1eko kontratuaren egikaritzea aldi baterako etete erabakia hartu aurretik, adjudikaziodunari, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari (PINOSOLO ABEE) erabaki hau helaraztea, SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak 2014ko martxoaren 17an egindako txosten juridikoarekin batera, hamabost (15) egun baliorduneko epean eskubidez komeni zaien alegazioak egin ditzan”.

2014ko maiatzaren 28an LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen aurrean Javier Blanco Sala jaunak sinatutako alegazioen idatzi bat aurkeztu zen PINOSOLO ABEEren izenean eta ordezkartzan, kudeatzaile bakarraren izaerarekin; bertan, berariaz adierazten zuen sozietateko administrazio kontseiluak proposatutako aldi baterako etetearen aurka zegoela.

Alegazioen idatzi hori ikusita, 2014ko uztailaren 22an, LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen administrazio kontseiluak ondorengo erabakia hartu zuen:

“1.- Javier Sala Blanco jaunak, PINOSOLO ABEEren izenean eta ordezkartzan, kudeatzaile bakarraren izaerarekin, sinatutako idatzian jasotako alegazioa osorik ezestea; bertan, berariaz adierazten zuen 2014ko apirilaren 29ko sozietateko administrazio kontseiluak proposatutako aldi baterako etetearen aurka zegoela, 2014ko maiatzaren 28an LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen aurrean aurkeztu zena; eta ezeste horretarako justifikazio modura balioko du 2014ko uztailaren 2an SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak egindako txosten juridikoa (erabaki honi era bereizezinean erantzen zaiou).

2.- Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idazteko, obra zuzendaritzako, segurtasun eta osasun alorreko koordinazioko eta obrak egikaritzeko 2011ko apirilaren 1eko kontratuaren egikaritzea aldi baterako etetea.

3.- Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idazteko, obra zuzendaritzako, segurtasun eta osasun alorreko koordinazioko eta obrak egikaritzeko 2011ko apirilaren 1eko kontratuaren egikaritzearen etete akta bat prestatzea; bertan, hura eragin duten egoerak idatziko dira eta kontratu horren egiteko egoera.

4.- Erabaki hau adjudikaziodunari, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari (PINOSOLO ABEE) helaraztea, 2014ko uztailearen 2an SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak egindako txosten juridikoarekin batera”.

2014ko irailaren 15ean LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen beste idatzi bat aurkeztu zen Javier Blanco Sala jaunak idatzita PINOSOLO ABEEren izenean eta ordezkarietan, kudeatzaile bakarraren izaerarekin; bertan, berriz ere idazten da ondorio guztietarako adierazita gera dadila erabakitako etetearekin ez dagoela ados; hala, honako hau eskatzen du:

“... LEIOA KIROLAK sozietateak baimena eman dezala adierazteko bere kontseiluko erabakiaren aurkako baliabide egokiak zein diren, noren aurrean aurkeztu behar duten eta zer epetan.

Eta gainera, erakundeko administrazio kontseiluko bilkurako akta guztien kopia eman diezagutela, kontratua adjudikatu zenetik gaur arte, Pinosolo kiroldegiko eraikuntza eta jarduerak hizpide izan dituzten eztabaidei dagokienez”.

Jarraian, LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio kontseiluak ondorengo ERABAKIA hartu zuen:

“1.- AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari (PINOSOLO ABEE) adieraztea, 2014ko uztailearen 22ko LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio kontseiluaren erabakitik ondorioztatutako kontratua eteteari buruzko eztabaida argitzeko, dagokion arbitraje-prozedurara jo behar duela Bilboko Merkataritza Ganberako Arbitraje Gortearen aurrean, Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idazteko, obra zuzendaritzako, segurtasun eta osasun alorreko koordinazioa eta obrak egikaritzeko lehiaketa agindu zuten administrazio baldintza orokorren pleguko 18. baldintzak xedatutakoa betez.

2.- AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari (PINOSOLO ABEE) erakundearen administrazio kontseiluko bilkuren akta guztien kopia ematea, kontratua adjudikatu zenetik gaur arte, Pinosolo kiroldegiko eraikuntza eta jarduerak hizpide izan dituzten eztabaidei dagokienez.

3.- Erabaki hau adjudikaziodunari, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari (PINOSOLO ABEE) helaraztea”.

BIGARRENA: LEIOA KIROLAK SAU SOZIETATEA DESEGITEA: 2014ko urriaren 17an, LEIOAKO UDALAN Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Hirigintzako zuzendari nagusiaren idatzia sartu zen eta, bertan, honako hau adierazten zen, beste irizpen batzuen artean:

“LEIOA KIROLAK SA sozietateak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, 2013ko ekitaldiari dagokion dokumentazioari buruzkoa, finantza desoreka bat ikusten da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren baldintzetan.

Horregatik, LEIOA KIROLAK SA sozietateari aipatutako zuzenketa plana aurkezteko agintzen zaio. Plan horrek LEIOAKO UDALAK egindako ondare ekarpenak edo kapital handitzearen harpidetza jaso ahalko ditu, baldin eta hark ondorengoa egiaztatzen bada: 2013ko ekitaldian aurrekontu egonkortasunaren, zor publikoaren eta hura ordaintzeko batez besteko epearen helburuak betetzeak ez duela berankortasun araudian ezarritako gehieneko 30 eguneko epea gainditzen.

Zuzenketa hori 2014ko abenduaren 31n beteko ez balitz, toki erakundeak desoreka egoeran jarraitzen duten erakunde guztiak desegingo ditu, erakundearen urteko kontuak onartzen direnetik edo 2014ko ekitaldiko aurrekontua likidatzen denetik zenbatzen hasita hurrengo 6 hilabeteko gehieneko epean”.

Jakinarazpen hori ikusita, LEIOAKO UDALEKO Udaltzakoak 2014ko azaroaren 28an egindako premiazko ezohiko bilkuran, LEIOA KIROLAK SAU sozietatea desegiteko proposamena aztertu zuen, ondorengo arrazoietan oinarrituz:

“1.- Jadanik aipatu den Bizkaiko Foru Aldundiak egindako eskaera aintzat hartuta, hau da, 2013ko ekitaldian sozietate horren finantza desoreka ikusten dela, horrek esan nahi du, aurrez udaleko kontu-hartzaileak txostena egin ostean, desoreka hori zuzentzeko plan bat izapidetu beharko zela, eta 2014ko abenduaren 31 baino lehen egiten ez bada, sozietatea desegin beharko zela.

2.- 2015eko finkatutako aurrekontuan LEIOA KIROLAK SAU sozietatearena berarena sartzeko beharra, alde horretatik, zuzenketa planaren aurretik izapidetu beharko zen, eta haren onspena ezinezkoa gertatuko zen; izan ere, aurrekontua egonkortzeko helburuak sozietatean ezingo ziren bete.

3.- Gaur egun sozietate horren biziraupena justifikatzen duen helburu bat ez izatea; izan ere, alde batetik, bere sorrera ekarraziz zuten Pinosolo kiroldegia egikaritzeko kontratua eteteko izapidetze egoeran dago eta, bestetik, 2014ko otsailaren 27an, udalaren osoko bilkurak kudeaketako mandatua baliogabetzeko erabakia hartu zuen aho batez Torresoloko kirol instalazioei eta instalazio osagarriei dagokienez, LEIOA KIROLAK SAU merkataritza sozietatea existitzea justifikatu ahalko zuten jarduera bakartzat jotzen dena”.

Beraz, LEIOAKO UDALAREN Udaltzakoak LEIOA KIROLAK SA sozietatearen administrazio kontseiluak hartutako erabakia berrestea onartu zuen aho batez; hala, sozietate horretako akziodunen batzar nagusiari hura desegiteko erabakia hartzeko baimena eman zion, honako hau bere gain hartuz: udalak hartuko dituela iraungitako sozietatearen eskubide eta betebeharrak, eta hala badagokio, egokitzat jotako legezko ekintzak egikaritzeko ahalmena izango duela.

2014ko azaroaren 28an LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen akzionisten ezohiko batzar nagusiak LEIOA KIROLAK SAU sozietate hori desegiteko erabakia hartu zuen aho batez (haren osaera Mariano Javier Gimeno Gómez-Lafuente notario jaunaren aurrean gauzatu zen 2008ko uztailaren 16an), eta desegite hori gauzatzeko beharrezko izapideak egikaritzea; hala, administrazio kontseilua batzorde likidatzaile bihurtuko zen, udalak iraungitako sozietatearen lekua hartuko zuela erabakiz bere eskubide eta betebeharrak guztiei dagokienez eta, horren ondorioz, hala badagokio, egokiak diren legezko ekintzak egikaritzeko ahalmena du.

HIRUGARRENA.- 2016ko otsailaren 15ean, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 44/2016 epaia eman zuen, 428/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsioan egokitua; bertan, Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2013ko maiatzaren 21eko ebazpena aurkaratzen

zen 05/2012 zehapen espedientean (Pinosolo lehiaketa), eta azken horretan honako hau adieraztea erabakitzen da: Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikulua urraketa bat egiaztatuta geratu dela (ARCAIN, INGENIERIA Y ARQUITECTURA SL da haren arduradun), Lehiaren Defentsarako Legearen 3. artikulua urraketa egiaztatuta geratu dela (aipatutako enpresa da arduraduna), eta errekurso egileari 89.000 euroko isuna jartzen zaiola.

Laburtuta esanda, epaiak dio ARCAIN enpresak (eta ondoren ikusiko dugu baita PINOSOLO ABEEk ere, AROS merkataritza sozietateak zehazki) jokabide zehagarria izan zuela lehiaren defentsarako alorrean, eta ziurtzat jotzen da Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikulua borondateen erabaki urratzaile bat izan zela; izan ere, Auzitegi Gorenak dioen moduan, 2013ko abenduaren 27ko epaia aipatuz, 1. artikulua zehapen motan tipifikatutako jarduera, hitzartutako edo ohartuki paraleloa den edozein erabaki edo jokabide da eta lehia libre faltsutzeko joera duena; horrek xede horretarako bi subjektu edo gehiagoren lehia eskatzen du. Arau hauste motak ez du behar lehia librearen urratzearen helburua lortzea, jokabidea egitean xede horretarako joera izan arte, hark arrakasta izan edo ez kontuan hartu gabe. Jokabideak gai izan behar du lehia librearen faltsutzea lortzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 44/2016 Epaiaren BIGARREN OINARRI JURIDIKOA).

ARCAIN eta PINOSOLO ABEE enpresei Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua debekatzeko klausula orokorra ezartzen zaie, hau da, lehia ez faltsutzea hitzartutako erabakien edo praktiken bidez. “Testuinguru esanguratsua eta oinarrizkoa da, kiroldegi baten eraikuntza adjudikatze lehiaketa publiko bat deitu baino askoz lehenago, plano baten filtrazio informatikoaren bidez bistan geratu zela horri buruz etorkizuneko ABEE lizitatu batek arkitekturako estudio bati jadanik goiz enkargatutako lan batzuk, etorkizuneko lehiaketa horretako baldintza teknikoaren plegua egingo zuen sozietatearen esku zeudela (50 milioi bat euroko balioa); hala, administrazio deitzailearen laguntzaile den sozietate horrek jadanik gogoan zituen lizitatu beharreko kiroldegia lotutako beste obra baterako aurretiazko proiektua (Olatu Artifiziala) egin zela-eta, harekin koherentzia arkitektonikoa izan behar zuela. Ondoren, ABEEk proiektu hori bera aurkezten zuen lehiaketako izapidean dagoeneko, pleguen egilea den sozietateak ABEEk balorazio handiena lortzen zuen bi Ebaluazio Batzordeetan parte hartzen zuen gehiengo zabalarekin eta, horrekin, behin-behineko adjudikazioa. Arrazoizko inferentzia garbia, bi sozietateen artean, euren arrazoiak eta betetze maila edozein izanda ere, Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikulua debekatutako borondateen adostasun bat izan zela, eta erabakiak proposatutako xedea lortzeko baliabide egokiak zituela, ez da lausotuta geratzen errekursoak balioan jartzeko dituen argudioekin”.

Horren ondorioz, ARCAIN enpresak Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikulua hautsi zuen.

Aipatu epaiarekin estu-estu loturik dago ondorengo Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaia, 407/2013 zenbakia duen errekursoari buruz, baina kasu honetan, lehenago aipatutako Lehiaren Euskal Agintaritzak 2013ko maiatzaren 21ean emandako Ebazpenaren aurka AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SAK jarritako inpugnazioari buruz.

Subjektu eskatzailearen diferentzia horrez gain, salak bere egiten ditu aurreko epaiaren arrazoiketak, LEIOA KIROLAK SAU sozietateari zuzendutako Lehiaren Euskal Kontseiluaren

aginduari buruzko irizpena salbu, arau hausleei kalte-galerengatik ordaindu edo konpentsatu ez ziezaien, “Kiroldedia” kontratuaren suntsiarazpenetik sortutakoak, eta Lehiaren Defentsarako Legearen 53.2.c) artikulua neurri zuzentzaileak hartzeko aukera eman arren interes publikoaren kontrako jardunbideen ondorioak kentzeko, erabakitakoak organo adjudikaziodunaren eskumenetan tartean sartzea dakar sozietate adjudikaziodunarekin lotzen duen kontratu harremanaren esparruan. LEIOA KIROLAKeko presidentek 2012ko urrian elkarrekin adostutako kontratua suntsiarazteko espedientea irekita, “amaiera eman zion egintzari” eta hala badagokio enpresa errekurso egilearen alde (AROS) finkatutako behin-behineko usteko kalte ordainari, ezin zaie eraginkortasuna kendu aztertzen ari diren zehatzeko ebazpen bidez, alde batera utzi gabe, kontratatzaileak, egokia iruditzen bazaio, egintzak berrikusteko prozedura has dezakeela azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII. tituluko I. kapituluaren ezarritakoa betez, Lehiaren Euskal Kontseiluak hautemandako arau hausteetan oinarrituz.

Hala ere, kontuan izan behar da 2016ko urriaren 2an indarrean jarri dela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen lege berria, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, azaroaren 26ko 30/1992 Legea indargabetzen duena. Izan ere, 39/2015 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean honako hau xedatu da: “Lege hau indarrean jarri ondoren hasitako ofizioz berrikusteko prozedurak lege honetan ezarritako moduan bideratuko dira.”

Ondorioz, aipatutako Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako xedapenek arautzen dute ofizioz berrikusteko prozedura hau.

LAUGARRENA.- 2016ko azaroaren 30ean, LEIOAKO UDALAREN Udaltzako honako erabaki hau hartu du:

“Lehenengoa.- LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen administrazio-kontseiluaren erabakiak ofizioz berrikusteko prozedura ofizioz hastea, ondoren aipatzen direnak:

- 2011ko urtarrilaren 31ko administrazio kontseiluaren erabakia, kontratazio organo moduan hartutakoa; haren bidez, “PINOSOLO KONTRATUA” AROS, ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek osatutako PINOSOLO ABEEri behin-behinekoren adjudikatu zitzaion.

- 2011ko otsailaren 11ko administrazio kontseiluaren erabakia; haren bidez, kontratua behin betiko PINOSOLO ABEEri adjudikatzea erabaki zen.

Berrikusteko prozedura honen arrazoiak 39/2015 Legearen 47.1 artikuluen a), f) eta g) idatzi-zatiak baliogabetzeko arrazoiak izatea da.

Bigarrena.- PINOSOLO ABEEri eta gainerako enpresa lizitatzailerik entzunaldi izapidea ematea, hamabost eguneko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, egokiak iruditzen zaien dokumentuak eta justifikazioak alegatu eta aurkeztu abal ditzaten, eta bai ondo oinarritutako agerian jarriko da administrazioko espedientea”.

BOSGARRENA.- 2017ko urtarrilaren 2an, Guillermo Ibarrondo Zamakona letradunak PINOSOLO ABEEren izenean eta hura ordezkatzuz sinatutako alegazio-idazki bat aurkeztu zen

LEIOAKO UDALEAN. Idazkian honako hau adierazi da: *“ez dago arrazoirik Udal Korporazioa aipatu egintzak ofizioz berrikusteko prozeduraren bidez deuseztatzeke gaitzen duenik, hortaz, ondoriorik gabe utzi beharko luke Udalbatzaren erabakia, prozedura amaitutzat jo eta expedientea artxiboan gorde, izapide gehiagorik gabe”.*

SEIGARRENA.- 2017ko otsailaren 6an (sarrera-erregistroaren zenbakia: 1259/17), Sanz&Saiz Abogados SL Bulego Juridikoak txosten juridikoa igorri zuen Pinosolo ABEEK LEIOAKO UDALEKO Udalbatzak 2016ko azaroaren 30ean hartutako erabakiaren aurka aurkeztutako alegazioen inguruan.

ZAZPIGARRENA.- Alexander Mendiola Castro jaunak, Giza baliabide eta Kontratazioko Administrazio Bereziko teknikariak, txosten bat igorri zuen 2017ko otsailaren 13an, Sanz&Saiz bulegoaren txostenean jasotako hainbat kontu zuzentzeko beharra aipatuz.

ZORTZIGARRENA.- 2017ko otsailaren 16an (sarrera-erregistroaren zenbakia: 1669/17), Sanz&Saiz Abogados SL Bulego Juridikoak beste txosten juridiko bat igorri zuen, Pinosolo ABEEK Leioako Udaleko Udalbatzak 2016ko azaroaren 30ean hartutako erabakiaren aurka aurkeztutako alegazioei buruz. Horretan, aintzat hartu zituen Alexander Mendiola Castro Giza baliabide eta Kontratazioko Administrazio Bereziko teknikariak adierazitako zuzenketak.

BEDERATZIGARRENA.- 2017ko martxoaren 2an, LEIOAKO UDALAREN Udalbatzak honako erabaki hau hartu zuen:

“Lehenengoa.- 2017ko urtarrilaren 2an aurkeztutako eta Guillermo Ibarondo Zamakona jaunak PINOSOLO ABEEren izenean eta hura ordezkaturik sinatutako idazkian jasotako alegazio guztiak ezestea, SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak 2017ko otsailaren 15ean igorritako txosten juridikoan jasotako argudioak oinarri hartuta.

Bigarrena.- LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen Administrazio Kontseiluaren erabakiak –jarraian aipatzen direnak– ofizioz berrikusteko eta horien deuseztatzea adierazteko proposamena onestea:

- 2011ko urtarrilaren 31ko Administrazio Kontseiluaren erabakia, kontratazio organo moduan hartutakoa, “Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak egikaritzea” kontratua AROS, ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek eratutako PINOSOLO ABEEri behin-behinekoz esleitu ziona.

- 2011ko otsailaren 11ko Administrazio Kontseiluaren erabakia, “Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak egikaritzea” kontratua PINOSOLO ABEEri behin betiko esleitzekoa.

39/2015 Legearen 47.1 artikulua a), f) eta g) idatz-zatietan agertzen diren baliogabetzeko kausak agertzea da berrikusteko prozedura honen arrazoiak.

Hirugarrena.- Eusko Legebiltzarren arazoaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 g) artikuluan xedatutakoa betetz, erabaki hau, administrazio-espeditentarekin batera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari helaraztea, aginduzko Irizpena igor dezan.

Laugarrena.- Erabaki hau, SANZ&SAIZ ABOGADOS bulegoak 2017ko otsailaren 2an egindako txosten juridikoarekin batera, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek eraturako aldi baterako enpresa elkarteari (PINOSOLO ABEE) helaraztea.

Bosgarrena.- Interesdun guztiei jakinaraztea (espeditentea ikusteko eta dagozkion alegazioak egiteko aukera eman ondoren, espeditentean egiaztatuta geratu den bezala), jakinaren gainean egon daitezkeen eta egokiak diren ondorioetarako, prozedura hau ebatzeko eta eabazpena jakinarazteko lege ezarri den gehienezko epea eten egingo dela Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko txostena jaso arte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua ezarritakoa –Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 26.1 artikuluaekin loturik– betetz”.

HAMARGARRENA.- 2017ko martxoaren 31n, LEIOAKO UDALAREN eskaera –nahitaezko irizpena igortzeko– jaso zen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan.

HAMAIKAGARRENA.- 2017ko apirilaren 3ko 841/17 Alkateza Dekretuaren bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1 d) artikuluan aurreikusitakoarekin bat, gehienezko epea, LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen Administrazio Kontseiluaren erabakiak ofizios berrikusteari eta beren deuseztasuna adierazteari buruzko espeditentea ebatzeko, aipatu nahitaezko txostena Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari eskatu zitzaionetik hura jaso arte eten egin zen, nolahi ere, hiru (3) hilabete baino denbora gutxiagoz.

HAMABIGARRENA.- 2017ko ekainaren 5ean, jakinarazi zaio LEIOAKO UDALARI Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osoko bilkurak emandako 102/2017 Irizpena (sarreraregistroko zk.: 5927/17). Horren bidez, kideen gehiengoz, honako hau erabaki da:

“Leioako Udalak baliorik gabe utzi behar ditu Leioa Kirolak SAU sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2011ko urtarrilaren 31n eta 2011ko otsailaren 11n hartutako erabakiak, "Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak egikaritzea" kontratua Pinosolo ABEEri behin-behineko eta behin betiko adjudikazioari dagozkionak, hurrenez hurren”.

Erabaki horren oinarri bakarra Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 g) artikuluan adierazitako deuseztatzeko kausa da. Izan ere, horren arabera, erabat deusezak izango dira Administrazio Publikoen egintzak, lege mailako xedapen batean espresuki halakotzat jotzen badira.

Eta horretarako, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak honako hau adierazi du bere 102/2017 Irizpenean:

“124. Kasu bonetan, berariazketasun hori lizitazioan parte hartu zuten operadoreei egotz dakizkiekeen eta Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1 artikulua debekatuta dauden jarduera batzuen bidezko adjudikazioa ofizioz berrikusteko eta egintza horren deuseztasuna adierazteko aukera moduan azter daiteke.

125. Planteamendu horrek esan nahi du, hain zuzen ere, lehiaren defentsaren arloan emandako sektore-lege batek ezarritako erabateko deuseztasunaren kasu bat dugula aurrean, Leioako Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legearen 47.1 artikuluko g) idatz-zatian (Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1 artikuluari loturik) adierazitako kausa alegatuz, oso egoki planteatu duenez. (...).

131. Aurrekoa kontuan hartuta, Leioako Udalak azaldutako hirugarren arrazoi hori dela eta, adjudikazioaren berrikuspenaren aldeko jarrera hartu behar dugu. (...).

138. Argudio horiek –baita Lehiaren Euskal Kontseiluak erabili dituen gainerako argudioak ere (kopiatu ez den testuan aipatzen ditugunak)– ikusita, ondorioztatu behar da, izan ere, Pinosolo kiroldegia eraikitzeari buruzko kontratuaren behin-behineko eta behin betiko esleipena lizitazioan parte hartu zuten operadoreetako batzuen jarduketa batzuek –Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1 artikulua debekatuta daudenek– eragin argia izan dutelako burutu dela, jarduketa horien ondorioz ez bada. Hain zuzen ere, aipatu behar da ARCAIN eta AROS enpresen arteko informazio-trukaketa, Pinosolo kiroldegiari buruzko lizitazioaren emaitza aldatzeko asmoz.

139. Ebazpen horretatik ondorioztatzen denez, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 62.3 artikulua arau-hauste larritzat jotzen du kolusiozko jokabideak aurrera eramatea lege bereko 1.1 artikuluan adierazitako moduan, baldin eta jokabide horiek elkarri lehia –egiazkoa edo abalezkoa– egiten ez dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen arteko akordioak, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako jardunbideak edo jakinaren gaineko jardunbide paraleloak badira. Hori dela eta, AROS eta ARCAIN enpresek 1.1 artikuluan jasotako arau-hauste larria egin dutela jotzen da, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.3 artikuluan dagoen salbuespena aplikatzeko aukerarik gabe.

140. Jarduketa horrek eragin diezaikekeen adjudikazio-egintzak erabat deuseztat jo behar dira, beren larritasuna dela eta.”

HAMAHIRUGARRENA.- Azkenean, 2017ko ekainaren 5eko 1466/17 Alkatetza Dekretuaren bidez Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 102/2017 Irizpena jakinarazita, bertan behera utzi da LEIOA KIROLAK SAUren Administrazio Kontseiluaren erabakiak ofizioz berrikusteari eta horien deuseztasuna deklaratzeari buruzko espedientea ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea eteteko erabakia.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

I.- URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN V. TITULUKO I. KAPITULUAN EZARRITAKO EGINTZAK BERRIKUSTEA.

Aurrekarietan azaldutakoan ikusi ahal izan denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai irmoak, 407/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren ingurukoak, “*obiter dicta*” moduan aztertu du Lehiaren Euskal Kontseiluaren ahalmena LEIOA KIROLAK SAUari agintzeko (ZORTZIGARREN ZUZENBIDE-OINARRIA) ez diezazkiela arau hausleci

“Kiroldesia” kontratuaren suntsiarazpenetik sortutako kalte-galerak ordaindu edo konpentsatu, eta hori, Lehiaren Defentsarako Legearen 53.2.c) artikulua interes publikoaren aurkako praktiken ondorioak eraldatzea helburu duten neurri zuzentzaileak hartzea ahalbidetu arren, erabakitakoak organo adjudikaziodunaren eskumenetan tartean sartzea dakarrelako sozietate adjudikaziodunarekin lotzen duen kontratu harremanaren esparruan. Hortik ondorioztatzen da zehapena ezartzeko ebazpenak ezin diola kendu eraginkortasuna ebazpen hipotetikoari, alde batera utzi gabe kontratatzaileak, egokia iruditzen bazaio, egintzak berrikusteko prozedura has dezakeela azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII. tituluko I. kapituluan (egun urriaren 1eko 39/2015 Legearen V. tituluko I. kapituluan) ezarritakoari jarraikiz, Lehiaren Euskal Kontseiluak hautemandako arau-haustekak oinarri hartuta.

Gauzak horrela, lehenago aipatutako epaian jasotako ofizioz berrikusteko prozedura aplikatu behar da, hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako izapideei jarraikiz.

Hain zuzen ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikulua honako hau adierazi du:

“Administrazio publikoek, noiznabi, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo abolku-emaile baliokideak, halakorik bada, deuseztat deklaratu dituzte, ofizioz, administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 47.1 artikuluan jasotako kasuetan”.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenari buruzkoaren, 4.1.g) artikulua udalerriri ematen dio *“bere egintzak eta erabakian ofizioak berrikusteko ahalmena”* eta 53. artikulua xedatzen du *“Toki Korporazioek bere egintzak eta erabakiak berrikusi abalko dituztela Estatuko Administrazioaren ustez administrazio prozedura erkidea arautzen duen estatuko legerian agindutako baldintzetan eta irismen mailan”.*

Kontratazioari buruzko araudiaren ikuspuntutik, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 34.1 artikulua, denbora eta baldintza administratiboen pleguan aurreikusitakoa direla medio aplikagarria den arauak honako hau ezartzen du: *“Prestamen egintzak eta administrazio publikoen kontratuen eta erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuen behin-behineko edo behin betiko adjudikaziorako egintzak ofizioz berrikusiko dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII. tituluko lehenengo kapituluan ezarritakoa betez”.*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.) artikulua arabera, ofizioz berrikusteko administrazio egintza egikaritzeko eskumena Udaltzak du.

Espedientea iraungitzeko epea hasten denetik sei (6) hilabetekoa da (39/2015 Legearen 106.5 artikulua).

Prozedura izapidetzeari dagokionez, 39/2015 Legearen 106. artikulua gaur egungo idazketan ez dago berariazko araurik, berrikuspena administrazio-prozedura erkidean aurreikusitakoaren arabera eta, azaroaren 24ko 9/2004 Legea betez, aginduzko instrukzio-egintzetan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena aldeztuz eskatuz egin behar dela esaten duenik.

Berrikusteko prozeduretan, Auzitegi Gorenak zehazten du “*Epaimahai honen jurisprudentziak tradizionalki bi fase bereizi dituela ofizioz berrikusteko prozeduretan. Lehenengoak espedientearen irekiera hartzen du, dagozkion izapideten ostean, Administrazioak erabakitzen du itxuraz berrikusteko eskatzen diren egintzek haien berrikuspena erabakiko zuten akatsak dituzten edo ez. Ondorioa baiezkoa bada, bigarren fasea irekitzen da, eta haren barnean Estatuko Kontseiluaren edo haren parekoa den autonomia erkidegoko organo aholku emailearen txosten eskaera sartzen da, eta aztertzen den egintza baliogabetzeko (edo ez) erabakia, egiten den txostenaren arabera (2001eko abenduaren 12ko epaia ikus daiteke).*”

Prozeduraren lehenengo faseak gutxienez ondorengo instrukzioko egintzak jaso behar ditu: 1.- Irekiera, 2.- Txosten teknikoak egitea, beharrezkoak balira, 3.- Txosten juridikoa, 4.- Interesdunentzako entzunaldi izapidea, 5.- Aurkeztutako alegazioei buruzko txostena, 6.- Ebazpen proposamena eta 7.- Espedientea organo aholku emailearen txosten bihurtzea.

Entzunaldi-izapideari dagokionez, prozedurarako deialdia adjudikazioduna izan den ABEEak jaso behar du, baina baita lizitazioan proposamenak aurkeztu zuten beste enpresek ere, 39/2015 Legearen 4.1 b) artikularekin bat, administrazio-prozeduran interesduntzat jotzen baitira prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak. Gainera, prozedurako lege horren 82. artikulua interesdun guztiek parte hartzeko deia luzatzen du, azken ebazpena eutsi daitekeen egitate, datu, dokumentu eta abarrei buruzko iritzia eman ahal dezaten.

Ikus daitekeenez, txosten honetan aipatutako Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren edukiarekin eta 39/2015 Legearen 106. artikularekin bat, has daiteke Pinosolo kirolegiari buruzko kontratuaren esleipena ofizioz berrikusteko prozedura.

Izan ere, berrikuspen-prozedura, hasi ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritako prozedurari jarraikiz izapidetu da, PINOSOLO ABEEri emandako entzunaldia barne. Gero, 2017ko maiatzaren 24an, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak LEIOAKO UDALAK hasitako ofiziozko berrikuspenaren aldeko irizpena eman du (102/2017 Irizpena).

Izan ere, horrela azaldu du Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bere 102/2017 Irizpenean, 2017ko maiatzaren 24koan, honako hau aipatu duenean:

“91. Jarraitutako prozedura aztertzean, azaldutako parametroak ikusita, behar bezala bete dela esan daiteke.”

Nolanahi ere, beharrezkoa da erabakitzea LEIOAKO UDALA legitimatuta dagoen LEIOA KIROLAK SAU bere sozietate bideratzailetik datozen erabakiak berrikusteko, eta hura, bere jardueraren alderdi zehatz batzuetan, zuzenbide pribatuaren aplikazioaren mende zegoen, eta egoera hori hurrengo idazpuruan aztertuko da.

II.- LEIOA KIROLAK SAU SOZIEATEAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ERABAKIAK BERRIKUSTEKO IZAERA. LEIOAKO UDALAREN LEGITIMAZIOA.

Ofiziozko berrikuspenaren bidea hautatuta, orain egiaztatu behar da ea LEIOA KIROLAK SAU sozietateko Administrazio Kontseiluaren erabakiak berrikuspen horren xedea izan daitezkeen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 106.1 artikuluan adierazitako moduan, LEIOAKO UDALAK sozietate horretan % 100eko partaidetza duen kontuan hartuta. Txosten honen bigarren aurrekarian azaldu denez, sozietatea desegin da eta jatorrizko administrazioa, hau da, LEIOAKO UDALA izendatu da ondorengo unibertsal.

Hori bai, oinordetzako egoera horretatik ondorioztatu badaiteke ere LEIOAKO UDALA dela erabateko balio gabetza adierazteko erakunde eskuduna, aurretiazko izaerarekin, honako hau eragiten du: sozietate publiko baten egintza bat berrikus daitekeen erabakitzeko beharra, eta jakina, ez dena administrazio egintza bat; izan ere, berrikuspenaren xedea LEIOA KIROLAK SAU sozietateko administrazio kontseiluko erabakiek eratzen dute.

Gai hori ebazteko, funtsezko izaera duena, beharrezkoa da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 2013. urteko 151, 152 eta 157 irizpenetara jotzea; bertan proposatu zen toki partzuergo bati lotutako sozietate publiko baten administrazio kontseiluaren erabakiak ofizioz berrikustea.

Zehazki, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 157/2013 irizpenak administrazio kontseilu baten erabaki bat balio gabe adierazteko bideragarritasun juridikoa aztertzen du, ahalmen baten bidez, Administrazioaren pribilegio gisa zahar modura katalogatua, legeak bere autotutoretza aktibatzen uzten dion heinean kokaleku oso berezian jarriz, partikularrengandik bestelakoa dena, eta horrek zuhurtzia areagotzea behartzen du beti bere erabileran eta irismenean, bai eta bere egikaritzea agintzen duten bermeak aztertzea ere.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazten duenez, erabakia administrazio publikoetako kontratuen araudiari lotutako kontratu bati buruzko egintza bat izateari esker, aldebakarreko berrikuspen bidera jo ahalko da. Izan ere, erabakigarria da egintza hori zuzenbide publikoaren menpean dagoela, onartu zenean dagoeneko indarrean baitzegoen urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena. Handik ondoriozta daiteke, LEIOA KIROLAK SAU merkataritza sozietatea bere eremu subjektiboaren barnean zegoela (3.1.d artikulua), LEIOAKO UDALAK % 100eko partaidetza baitu.

Administrazioaren kontratazioaren araubidea merkataritza sozietate publikoetara zabaltzearen arrazoia, jakina denez, Europako Erkidegoko zuzenbideak ezarritako eskakizunak dira (ez sartzeak Espainiaren zigorra eragin zuen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko epaian, 2003ko maiatzaren 15ekoa, 138/2003 zenbakia).

Azterketa honetan presente izatea komeni den legezko arau horretako elementu aipagarri moduan ere ageri da, bere eremu subjektiboa finkatzean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.1 artikulua, sektore publikoaren terminoa zentzuz erabili nahi duen eran erabiltzen duela, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko irizpenean (46/2012 zenbakia) esaten zen moduan:

“...lurraldeetako administrazio bakoitzaren sare instituzionala sartzeara, eta bertan, administrazio nagusiari bere mendeko edo lotuta dauden erakundeak edo sozietateak gehitzen zaiatzeko. Normalean erabiltzen da dagokion administrazio publiko guztia hartzeko asmoz, ondorengo premisatik abiatuz: gaur egun bere osaera homogeneoa

izatek oso urrun dagoela bere jarduerak egikaritzeko pertsonifikazioko bainat formula erabiltzean, eta erakunde bideratzaileen panoplia zabal horrek zenbait gaietan zuzenbide publikoko arauen mende jarrai dezala (arabide juridiko eta finantzarioa, langileak hautatzea, bateraezintasunak eta ordainsariak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea...)".

Kontratuaren arabide juridikoari dagokionez, merkataritza sozietate batek egindakoa izatean kontratu pribatuaren irizpena du, baina agindu behar dira "bere prestakuntza eta adjudikazioari dagokionez, berariazko araurik izan ezean, lege honen eta bere garapeneko xedapenen bidez, eta era gehigarrian administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatu beharko dira edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko arauak subjektu edo erakunde kontratatzailearen arabera dagokiona. Bere ondorioei eta iraungitzeari dagokionez, kontratu horiek zuzenbide pribatuak aginduko ditu" (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 20.2 artikulua). Prestamen egintzak edo behin-behinekoak edo behin betikoak erabateko baliogabetzeko arrazoi baten erdian izan daitezke (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikulua).

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 34. artikulua aipatzen du ofiziozko berrikuspena 30/1992 Legearen VII. tituluko I. kapituluaren ezarritakoa betez egingo dela. Halaber, agindu horrek administrazio publiko batekoak ez diren kontratuen kasuan deuseztasuna adierazteko eskumena honako honi ematen dio: erakunde kontratatzailea atxikita dagoen sail, organo, erakunde edo organismoko titularrari edo bere tutoretza dagokionari, gure kasuan, LEIOAKO UDALA da.

Merkataritza sozietateak ofizioz berrikusteko eskumena ez duela ikusi dugunez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hura egiteko gaitutako subjektua erabakitzen du, hau da, LEIOAKO UDALA.

Izan ere, horixe izan du kontuan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bere 102/2017 Irizpenean, 2017ko maiatzaren 24koan, LEIOAKO UDALAREN eskaerari erantzunez igorritakoan, honako hau aipatu duenean:

"98. Nolanahi ere, LEIOA KIROLAK sozietatea botere esleitzailerik gisa eratu zen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko legearen 3.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta aztergai den kontratua, bere xedea eta zenbatekoa kontuan hartuta, arauketa harmonizatuaren mende zegoen, baldintzen pleguak adierazi duen bezalaxe (karatularen C atala eta 1.2 klausula).

99. Aurrekoak esan nahi du, prozeduraren azterketan esan bezala, prestamen egintzak eta kontratu hori behin-behinekoak zein behin betiko adjudikatzea ofizioz berrikustea Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidean ezarritakoarekin bat egin behar dela; izan ere, erregulazio horrek batu nahi ditu – horretarako aukera emanaz – kontratazio publikoari buruzko zuzentarauetatik eratorritako betekizunak eta, administrazioak zuzenbide pribatuaren arloan dibarduenean ere, administrazio-zuzenbidearen mende dauden "egintza bereizgarrien" barne-sorkuntza klasikoa."

Horrek hartu nahi diren erabakien berrikuspena egin daitekeela pentsarazten digu eta LEIOAKO UDALA beren deuseztasuna adierazteko administrazio publiko eskudun gisa identifikatzailea behartzen gaitu.

III.- BALIOGABETZEKO ARRAZOIAK.

39/2015 Legearen 106.1 artikulua agintzen du administrazioko egintzen deuseztasuna ofizioz adierazteko betebeharra, aipatutako legeko testuaren 47.1 artikuluan ezarritako kasuetan.

Arau horrek bere g) idatz-zatian adierazten duenez, erabat deusezak izango dira Administrazio Publikoen egintzak, lege mailako xedapen batean espresuki halakotzat jotzen badira.

30/2007 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren, 1. artikulua erabakitzen duenez, legearen helburua lizitazioetarako askatasun printzipioa, gardentasunerako printzipioa, hautagaien artean berdintasuneko tratua eta diskriminaziorik eza bermatzea da, bai eta lehia librea zaintzea ere, beste helburu batzuen artean.

EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2016ko otsailaren 15ean martxoaren 22an emandako epaiek, txosten honen HIRUGARREN aurrekarian aipatutakoak, ondorengo adierazten dute: ARCAIN eta AROS (PINOSOLO ABEEren kide) merkataritza sozietateek jokabide zehagarria izan dutela lehiaren defentsarako arloan, eta Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikulua borondateen erabaki urratzaile bat izan dela ziurtzat jotzen da. Epai horiek irmotu egin dira eta botere publikoak lotzen ditu.

Beraz, erakunde lizitatuaren artean lehiaren aldaketa bat izan dela egiaztatu da. Aipatutako epaien edukiari buruz ari gara berariaz; zehazki, beharrezkoa da errepikatzea 2016ko otsailaren 15eko EAEko Auzitegi Nagusiko epaiaren paragrafoa, froga sinesgarri modura eta frogatzeko bere alde egiteko balio izan zuen enpresaren partaidetza egon zela eskaintza egiteko orduan, eta haren esku hartzea eragin erabakigarria gertatu zela lizitazioaren baldintzak bere alde bideratzeko. Paragrafo horrek honako hau aipatzen du:

“Testuinguru esanguratsua eta oinarritzkoa da, kiroldegi baten eraikuntza adjudikatzeke lehiaketa publiko bat deitu baino askoz lehenago, plano baten filtrazio informatikoaren bidez bistan geratu zela horri buruz etorkizuneko ABEE lizitatuaren batek arkitektoaren estudio bati jadanik goiz enkargatutako lan batzuk, etorkizuneko lehiaketa horretako baldintza teknikoaren plegua egingo zuen sozietatearen esku zudela (50 milioi bat euroko balioa); hala, administrazio deitzailearen laguntzaile den sozietate horrek jadanik gogoan zituen lizitatu beharreko kiroldegiari lotutako beste obra baterako aurretiazko proiektua (Olatu Artifiziala) egin zela eta, harekin koherentzia arkitektonikoa izan behar zuela. Ondoren, ABEEk proiektu hori bera aurkezten zuten lehiaketako izapidean dagoeneko, pleguen egilea den sozietateak ABEEk balorazio handiena lortzen zuten bi Ebaluazio Batzordeetan parte hartzen zuten gehiengo zabalarekin eta, horrekin, behin-behineko adjudikazioa. Arrazoiak inferentzia garbia, bi sozietateen artean, euren arrazoiak eta betetze maila edozein izanda ere, Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikulua debekatutako borondateen adostasun bat izan zela, eta erabakiak proposatutako xedea lortzeko baliabide egokiak zituela, ez da lausotuta geratzen errekursoak balioan jartzeko dituen argudioekin”.

Argi dago araua hautsi duen ABEEk lehia faltsutu duela, hainbeste aldiz aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiek erabakitzen dutenez. Faltsutze hori kolusiozko jokabidea da eta debekatuta dago Lehiaren Defentsari buruzko uztailearen 3ko 15/2007 Legearen 1. artikulua bidez. Gainera, aipatu 1. artikulua 2. idatz-zatian esanbidez aurreikusitako erabat deuseztatzea dakar ondorioz.

Hain zuzen ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bere 102/2017 Irizpenean honako hau adierazi du:

“124. Kasu honetan, berariazketasun hori lizitazioan parte hartu zuten operadoreei egotz dakizkiekeen eta Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1 artikulua debekatuta dauden jardura batzuen bidezko adjudikazioa ofizioz berrikusteko eta egintza horren deuseztasuna adierazteko aukera moduan azter daiteke.

125. Planteamendu horrek esan nahi du, hain zuzen ere, lehiaren defentsaren arloan emandako sektore-lege batek ezarritako erabateko deuseztasunaren kasu bat dugula aurrean, Leioako Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legearen 47.1 artikuluko g) idatz-zatian (Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1 artikuluari loturik) adierazitako kausa alegatu, oso egoki planteatu duenez.

(...).

131. Aurrekoa kontuan hartuta, Leioako Udalak azaldutako hirugarren arrazoi hori dela eta, adjudikazioaren berrikuspenaren aldeko jarrera hartu behar dugu.

(...).

138. Argudio horiek –baita Lehiaren Euskal Kontseiluak erabili dituen gainerako argudioak ere (kopiatu ez den testuan aipatzen ditugunak)– ikusita, ondorioztatu behar da, izan ere, Pinosolo kiroldegia eraikitzeari buruzko kontratuaren behin-behineko eta behin betiko esleipena lizitazioan parte hartu zuten operadoreetako batzuen jarduketa batzuek –Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1 artikulua debekatuta daudenek– eragin argia izan dutelako burutu dela, jarduketa horien ondorioz ez bada. Hain zuzen ere, aipatu behar da ARCAIN eta AROS enpresen arteko informazio-trukaketa, Pinosolo kiroldegiari buruzko lizitazioaren emaitza aldatzeko asmoz.

139. Ebazpen horretatik ondorioztatzen denez, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 62.3 artikulua arau-bauste larritzat jotzen du kolusiozko jokabideak aurrera eramatea lege bereko 1.1 artikuluan adierazitako moduan, baldin eta jokabide horiek elkarri lehia –egiazkoa edo ahalezkoa– egiten ez dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen arteko akordioak, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako jardumbideak edo jakinaren gaineko jardumbide paraleloak badira. Hori dela eta, AROS eta ARCAIN enpresek 1.1 artikuluan jasotako arau-bauste larria egin dutela jotzen da, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.3 artikuluan dagoen salbuespena aplikatzeko ankerarik gabe.

140. Jarduketa horrek eragin diezaikeen adjudikazio-egintzak erabat deuseztat jo behar dira, beren larritasuna dela eta.”

Aurreko guztia aintzat hartuta, Udalbatzak:

ERABAKI DU

Lehenengoa.- LEIOA KIROLAK SAU sozietatearen administrazio-kontseiluaren erabakiak – ondoren aipatzen direnak– ofizioz berrikusteko prozedura hastea eta deusezak direla adieraztea:

- 2011ko urtarrilaren 31ko Administrazio Kontseiluaren erabakia, kontratazio organo moduan hartutakoa, “Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun

arloa koordinatzea eta obrak egikaritzea” kontratua AROS, ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek eratutako PINOSOLO ABEEri behin-behinekoz esleitu ziona.

- 2011ko otsailaren 11ko Administrazio Kontseiluaren erabakia, “Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak egikaritzea” kontratua PINOSOLO ABEEri behin betiko esleitzekoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikulua (g) idatz-zatian jasota dauden deuseztatzeko kausak aldi berean gertatzea da erabakiak ofizios berrikusteko arrazoia.

Bigarrena.- “Pinosolo kiroldegi berriko proiektua idazteko, obra zuzendaritzako, segurtasun eta osasun alorreko koordinazioko eta obrak egikaritzeko” kontratua likidatzea eta erabakitzea PINOSOLO ABEEk ez duela eskubiderik inolako zenbateko gehigarririk jasotzeko, enpresa-elkartek prestazioak burutu ahala fakturatutako diru-zenbatekoak dagoeneko ordaindu zitzaizkiolako.

Hirugarrena.- Erabaki hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko idazkariari helaraztea, azaroaren 24ko Eusko Legebiltzarraren 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatutakoa betez.

Laugarrena.- Erabaki hau, baita Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 102/2017 Irizpenaren kopia ere, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA SA eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ SA enpresek eratutako aldi baterako enpresa-elkarteari (PINOSOLO ABEE) helaraztea.

Bosgarrena.- Interesdun guztiei jakinaraztea erabaki honen aurka aurkez dezaketela aukerako berraztertze-errekurtsoa LEIOAKO UDALEKO Udaltzaren aurrean, hilabete bateko (1) epean, jakinarazpena egin ondorengo egunetik zenbatzen hasita, edo bestela, zuzenean, finkatutako txandari jarraituz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondorengo egunetik zenbatzen hasita.

EH-Bildu Leioa taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunak adierazi zuen bere taldeko kideek uko egingo zietela premiazko eta ezohiko bilkurara joateagatik ordainsariei.

Eta arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direnean, Alkatetza-udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkari nagusia naizen honek.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA,